

Herenegun inauguratu zuten; natura eta artea uztartzen ditu ▶ 2-3



Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2006-06-11 ▶ IV. urtea ▶ 909. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Herriko jaien ospakizunetan murgildu dira jada anoetarrak

**LEHEN EGUNA** ▶ Udalak antolatuta, pilota partidak eta herriko artisten lanak izan ziren ikusgai, atzo

**DEMA** ▶ «Ez hain gazteek» aurrea hartu zieten gazteei Herri Borondatearen Aldeko Jaietako sega proban ▶ 4



Herriko artisten eta eskulanetako taldekoen lanen erakusketak ikusmina piztu zuen atzo. N. URBIZU



Aurkariak moztutako belarra bildu eta 22 plaza egin zituzten helduek; gazteen taldeak, berriz, 17. N. URBIZU

**TOLOSALDEA** ▶

## Ernioalde Udaltaldea osatzen duten herrien mugikortasuna ardatz

%50ak autoa erabiltzen du, %23 oinez mugitzen da; %8 autobusez, eta %6 trenez, diagnostikoaren arabera ▶ 6-7

**TOLOSA** ▶

## Bazkari bereziarekin agurtuko dute Adinekoen Astea gaur

Atzo, bazkaria eta omenaldia izan zuten lurreamendikoek ▶ 5



Adinekoak eta senideak, atzo, bazkarian elkartuta. E. EZEIZA

**TOLOSA** ▶

## Azokan ere eragina izan du beroak

Erosle eta produktu gutxiago eta giro apalagoa nabaritu ziren atzo ▶ 7

## badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAREN egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAREN egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

## IRUDIETAN ▶

Olentzo,  
natura eta  
arte uztartuz

ESTI EZEIZA

Arte eta natura lotuz, Olentzo ingurua arte lorategi bilakatu da. Jatetxe aurreko zelaiak, musseo bat balitz bezala, eskultura garaikideak biltzea lortu du. Honekin, «arte jendearengana hurbildu nahi» dute antolatzailerak. Dohainik, euskal artisten lanak dira ikusgai, hala, Zizurkilan. Atzo iluntzean, giro paregabean egin zuten inaugurazioa, musika, artisten konpainia, eta luntzarekin. Horrela, gaurtik aurrera edonor hurbil daiteke arteaz gozatzera.

Alvaro Ledesmanen *Zeharkaezina* eskultura. E. E.

Jendea eskulturei argazkiak ateratzen eta ikuskatzen aritu zen inaugurazioan. E. EZEIZA

## UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

## Sailburuordearen miopia



**E**usko Jaurlaritzak atera ditu euskarazko komunikabideentzako laguntzak. Aurreko urteetan baino handiagoak kopuru absolutuetan; hala ere, ez dira nahikoak euskal prentzaren ordezkarier iritzian, hazkundera-

ren zatirik handiena erdal medioetan sortuko diren euskarazko gehigarriek jango dutelakoan.

Sailburuordeari entzun diot euskal medioek ez dutela ezagutzaren pareko irakurle igoerarik izan. Eta lerro artean bezala, bere diagnostikoa labaintzen utzi du. Euskarazko medioen pluraltasun falta nonbait arazoa. Horregatik ez da irakurle gehiago arrimatzen euskal letretara.

Miopiak horixe du berekin: irismen eskaseko begiramena. Nahiko nuke nik Sailburuorde jaunak adieraziko balu

zein duen berak pluraltasunaren eredutzat gure inguruko komunikabideen artean, jakiteagatik besterik gabe. Eta zergatik ez ote du aipatzen Sailburuorde jaunak ETB1ek azken hamabi urteetan izan duen audientzia jaitsiera, euskara gero eta jende gehiagok ezagutzen duenean eta telebista ikusteak irakurtzeak baina neke gutxiago eskatzen duenean? Miopia ote bere telebitari ez errepartzeko arrazoa?

Noski, badakigu proiektu pluralagoak egin daitezkeela. Baina adiskideok, proiektuaren sorreran nahi nuke nik

pluraltasun hori: dena egiteko dagonean, dena oztopo denean, lana gogotik egin behar denean, eta musustruk.

Eta sorreran bezala, ondoren lana soldata eskasen truke egiteko ere ez da jende plurala biltzen; Sailburuordeak hainbeste maite dituen botere guneetatik aparte dabilen eta ibiltzera kondanatu duten jendea izango da gero ere; gaizki iruditzen zaiona kritikatzeko eta esateko aske sentitu nahi duena.

Nahiz eta Sailburuordeari, Diputatu Nagusiari edo alkateren bati horrelakorik ez gustatu. Miopiak miopia, gero ere hori ikusi beharko du.

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**  
HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

**LANPOSTUAK**

**Langileak.** Bergaran, Hernanin eta Errenterian honako lanpostuak bete behar dituzte: mantenimenduko peoiak, garbitzaileak, askotariko zerbitzuak, lorezainak. 943 31 37 82.

**Mantenimendua.** Igeltseroak, arotzak, elektrikariak, gidariak.

Udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

**Haur hezitzaileak.** Plaza finkoak betetzeko lanpostuak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Harreragileak, telefonistak.** Plazak libre. Eskola Agria dutenetik aurrera. 943 31 37 82.  
**Agiritegietako laguntzaileak.**

Arrasate, Bergara, Donostia, Soraluze eta Igoerarako behar dira. 943 31 37 82.

**Osakidetza.** Plazak libre: teknikariak, laborategiko laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Sukaldariak.** Eribeetako jabetzeetarako behar dira.

Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Gidariak, txoferrak.** Plaza libreak betetzeko hurrengo deialdiatarako. 1.800 euro hileko.

943 31 37 82.  
**Peoiak.** Lorezainak, elektrikariak, iturginak, langileak, kontserjeak, udaletarako gidariak. 943 31 37 82.

## hilberria ▶

## Maribi Dorronsoro Otamendi



Eguzki eder joan guztien argia baitu bihotzak eta begien mila ernegai iraganaren oroitzak.

Aurtzaka eta Jakintza dantza taldeak  
BEASAIN-ORDIZIA, 2006ko ekainaren 11

## hilberria ▶

## Dorronsoro Otamendi Maribi

ATZO hil zen, 54 urte zituela

Maite zaitugulako gurekin zaude, gurekin betirako.

Muxu handi bat eta gero arte.

Zure lagunak: Bixen, Joxe, Ana Mari, Miguel, Mila, Miguel, Pili, Juli, Begoña, Mari Jose, Arantxa, Marta, Jose Luis.

Hileta elizkizuna GAUR, IGANDEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ZERAINGO ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua bertan dela.

ZERAIN, 2006ko ekainaren 11



## ESKERTZA ▶

Juan Maria Garate Imaz jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Tolosan, 2006ko ekainaren 11n



Musika ere, erakusketa alaituz. E. E.



Artisten lanak ikusi ondoren, jendea mahaiondora zerbait jatera bildu zen. E. E.



Agurtzane Otegi, bere artelanaren ondoan. E. EZEIZA

GUTUN@K ▶

Gutun irekia  
Batasuneko  
kideei

Lehenago larunbat goizean, ekainak 3, kartelak jarri zenituzten —kendu egin dituzte, baina badago bat osoa oraindik San Frantzisko ibilbidean Naikari eta Natur House Dietetica belar dendaren artean—.

Kartel horretan nire argazkia azaltzen da —beste batzuen ondoan—, behegero beste pertsona batzuen argazkiak —txikiagoak eta «Tolosakoak» aipamena eginez— eta honako esaldi hauek ere: «Alkate lapurrak», «No apartheid», «Dimisioak orain», «Herriaren borondatea errespetatu».

Egiten dizkizuedan galderak hurrengo hauek dira:

1. Zeinek zarete zuek —Tolosako biztanleak— Belauntzako udalerriko gaietan muturra sartzeko? Ez al duzue ezagutzen udal autonomiaren printzipioa? Gu joan al gara inoiz Tolosako herria ordenatzera? Noiz kabituko zarete bakoitza bere herrian? —ez da kasuali-

tatea nire argazkia Tolosako zinegotziena baino handiagoa izatea. Garrantzia handiagoa al daukat nahiz eta Tolosakoa ez izan?—.

2. Zeinek eman dizue baime-na nire argazkia —gaizkile gisa— Tolosako kaleetako parretetan jartzeko? Zeinek zarete zuek nire eskubideak urratzeko? Non utzi duzue maiz erabiltzen duzuen «Euskal Herriko biztanle guztien eskubideak errespetatu behar dira» esaldia? Ala esaldi horrek bakarrik al dauka erabilgarritasuna zuen taldeko partaideentzat?

Azter ditzagun zuek jarritako karteleko esaldiak Belauntzako Udalaren kasuan:

a. Alkate lapurtzat jartzen nautzue: zuek badakizue —batez ere kartelak jartzen aritu zen Tolosako zinegotzi ohiak, asko edo gutxi, esperientzia duena alkatea nola aukeratzaren jakiteko esperientzia handirik ez bada behar ere— Belauntzaren zer gertatu den, eta gezurretan ari zarete.

Hala ere, Tolosaldeko bizilagunek jakin dezaten, hurrengo hau izan da Belauntzako alkatea hautatzeko prozesua:

1. 2003ko maiatzaren 25eko udal hauteskundeetara hiru talde aurkeztu ziren Belauntzaren —epaile espainiarrek ez zuten anulatu hautesle zerrendarik—.

2. 2003ko ekainaren 14an Belauntzako udaltxean egindako Udala eratzeko bilkuran, 3 zinegotzien aldeko botoez —7 dira Belauntzako udalbatza osatzen dutenak— Belauntzako Susturriak taldeko Gari-koitx Argote Astibiak hartu zuten alkate kargua.

3. 2003ko azaroaren 7an egindako udalbatzarrean, Gari-koitx Argote Astibiak alkate karguaren dimisioa aurkeztu zuen eta uko egin zion ere zinegotzi izateari.

4. 2003ko azaroaren 28ko udalbatzarrean —legezko 7 zinegotzietatik osatuta— botazioa egin zen Belauntzako alkate berria aukeratzeko eta 4 zinegotzien aldeko botoez, ni —Eduarne Arbelegi Goenaga— izan nintzen izendatua. Beraz, demokratikoki eta gehiengo osoz —zazpi zinegotzietatik lauk— Belauntzako udalerriko biztanleen ordezkariek —ematen du ahaztu egin zaizuela

hori— erabaki zuten ni izatea Belauntzako alkate. Azaldu ezazue, mesedez, zein momentutan gertatu den lapurreta. Edo Belauntzako udalerraren kasuan ez al dute balio herritarrek aukeratutako ordezkarien erabakiek? Euskal Herria osoan bai eta Belauntzaren ez? Erantzun, mesedez.

b. «No apartheid». Zein udal ordezkarri izan da baztertua, apartatua, Belauntzako Udalerraren? Belauntzako udalbatzarrek gehiengo osoz erabakitakoak ez al du baliorik? Adieraz ezazue zein momentutan gertatu den *apartheid*-a.

c. «Dimisioak orain!». Zergatik? Zuek esaten duzuelako? Esan, mesedez, Belauntzako Udaleko zeinek —alkate edo zinegotzik— aurkeztu behar duen dimisioa eta agian, ondo arrazoitzen baduzue, kasu egingo dizuegu, antza denez, berezko jakituriaren eramaileak zarete eta.

d. «Herriaren borondatea errespetatu». Esaiguzue zein garaitan eta zein erabakiz ez dugun errespetatu herriaren borondatea. Herritarrei eta Udaleko talde guztiei informa-

zio osoa ematen diegu, hartzen ditugu erabakiak gardentasun osoz —udalbatzarretan, herritarren aurrean—, ematen dugu alkateak hartutako erabakien berri, hau da, demokrazia osoz jokatzeko dugu eta, hala ere, esaten diguzue herritarren borondatea errespetatu behar dugula. Zuentzat zer da edo zein da Herria Belauntzaren?

Ez gara jabetzen prozesuaren zein ataletan egin dugun huts. Zuek beharbada gu baino azkarragoak zarete eta izango dituzue funtsezko arrazoiak kartelelan aipatutako ekintza larriak —lapurreta, *apartheid*, herriaren borondatea ez errespetatzea— guri leporatzeko.

Adierazi edo zuzendu, mesedez, idazki honi erantzunda. Akusazio larriak dira, Epaitegian salatzen modukoak, baina ez dugu hartuko bide hori bakea nahi dugulako. Nahi dugu bakea izatea Euskal Herria osoan eta Belauntzaren ere hori behar dugu, elkarren arteko errespetuan oinarritutako bakea. Hala bedi.

EDURNE ARBELEGI  
(BELAUNTZAKO  
ALKATEA) ▶ BELAUNTZA

hilerria ▶

Maribi Dorronsoro Otamendi

(Iban txistulariaren ama)



Platerik goxoa,  
zure prestutasuna eta maitasuna.  
Ez adiorik.

Goruntz dantza taldea eta Gabiriako txistulari taldea

GABIRIA, 2006ko ekainaren 11



hilerria ▶

Maribi Dorronsoro Otamendi

ATZO hil zen, 54 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Senarra: Martin Iruzastabarrena; semeak: Jon eta Ainhoa, Xier, Iban; ama: Rosario Otamendi (Juan Inazio Dorronsororen alarguna); sendeak: M<sup>o</sup> Jesus eta Tomas (+), Alazne eta Jose Angel, Lurdes, Hilario, Meltxor, Arantxa eta Mikel, Kornelio eta Nekane; ezkon sendeak: Jose eta Anttoni, M<sup>o</sup> Dolores eta Julian, Pako eta Txaro, Agustin eta Loli, Kontxi eta Jose Luis, Jesus eta Loli, Pello eta Joxepi, Inazio, Amparito eta Bittor; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

hilerria ▶ Ostatu etxea  
oharra ▶ gorpua Beasaingo Goierri Bellategian egongo da.

ZERAIN, 2006ko ekainaren 11



## ANOETA ▶ JAIK



**Herri dema.** 11:00ak aldera, anoetar asko Herri Borondatearen Aldeko Jaien barneko herri deman izan ziren. Segala proba egon zen, gazteak «ez hain gazteen» aurka. 10 minutuz aritu ziren belarra mozten, eta ondoren, biltzaileek kontrako taldearen belarra jaso eta lera batean kargaturik plazak egin behar izan zituzten. Hori guztia, 30 minututan. Irabazleak helduak izan ziren, 22 plaza eginik. Gazteek, 17. N. URBIZU



**Erakusketa.** Herriko artistek eta eskulanetako taldeak egindako lanak ikusgai egon ziren udalebexan. Bertan, hamaiketakoia izan zen. N. URBIZU



**Koadrila Eguna.** Egunean zehar, besteen artean, jokoak egin zituzten. Jokoetan, atxurrik behar ez baziren ere, baten bat ikusi zen... N. U.



**IX. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak.** Neska-mutielek jokatu zituzten finalak, pilotalekuan. Benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak aritu ziren. N. URBIZU



**Beroa egun osoan zehar.** Terrazan freskagarririk har ez zezaketenak, beroari aurre egiteko, nola edo hala, moldatu ziren. Haurrak puxikekin aritu ziren jolasten. N. U.

# Korpusen aurretik ere giro aparta izan da

Gustu guztietako ekintzak izan dira: gazte eta 'helduen' arteko dema izan da ekitaldien artean arrakastatsuen

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**
- ▶ **uneoro** informazioa eskura [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

**KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA**

txartel berriarekin abantailak!



beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste



egunean 0,18 zentimoren truke etxean

### NEREA URBIZU

Anoetako Korpus festei bidea irekitzeko ekintza erakargarriak antolatu dituzte aurtan. Atzokoan, kirola, musika, eta artelanak ikusteko aukera izan zuen, jan eta edariaren artean.

11:00ak aldera, hainbat koadrila bildu ziren, sega proba egingo zen zelairaino trikitixa doinuaz lagunduta joanik. Herri Borondatearen Aldeko Jaien barneko ekintza zen, eta arrakastatsua izan zen. Bertsolariak ere izan ziren bertan, hamaiketakoarekin batera. Segalari gazteen taldea eta «ez hain gazteen» aritu ziren 10 minutuz belarra mozten, eta giroa zerbituta zegoen.

Goiz goizetik, IX. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako partidak izan ziren pilotalekuan, Udaltzaile Eskolak antolatuta. Udalteko atea 12:30ean ireki zituzten, herriko artistek eta eskulanetako taldeak eginda-

### GAUR ▶

#### UDALAREN EGITARAUA

**11:00.** Zezenxoak eta ponyak plazan.  
**12:00.** Pilota partidak.  
**12:15.** Buruhandien eta erraldoen kalejira.  
**16:00.** Txirindulariak.  
**17:00.** Dantza taldeen emanaldia. Ondoren, merienda. Gero, Joseba eta Andoni trikitilariak.

#### HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIK

**10:00.** Baserritarren eta artisauen azoka. Goizean zehar EHNA tramitatzeko aukera izango da, eta haurrentzako pilota tailerra.  
**Ondoren.** Bazkari herrikoa.  
**17:00.** Mus txapelketa.

ko lanen erakusketa baitzegoen. Hamaiketakoia ere izan zen. Gaur jarraituko du jaiak.

ADINEKOEN ASTEA ▶

# Beti gazte

Gaur, bazkari berezi batekin emango diote bukaera lurreamendi egoitzakoek 2006ko Adinekoen Asteari



Euskal Herria plazako Zentro Sozialean bazkaria egin zuten atzo lurreamendiko adinekoek. E. EZEIZA

**ESTI EZEIZA**

Lurreamendi zaharren egoitzak antolatutako Adinekoen Astearren baitan, bazkaria egin zuten atzo. Euskal Herria plazako Zentro Sozialean. Helduak ez ezik, gaztetxoren bat edo beste ere joan zen aitona-amonekin eguna ospatzera. Jai giroan, ederki pasatu zuten bertara bildu zirenek; denera, 40 lagun inguru elkartu ziren Gerontologikoa zegoen egoitzan. Ondoren, egunari amaiera

emateko, 90 urte bete dituzten egoiliarrei omenaldia egin zieten erresidentziako gainontze-ko adinduek eta lagunek. Asteazken zehar hainbat ekitaldi egin dituzte, besteak beste: jokoak, Donostiako Alaitu abesbatzaren emanaldia, Tolosako Musika Eskolako ikasleen kontzertua... Eta ospakizun hauetaz bertan bukatu emateko, gaur, eguerdiko 13:00etan, bazkari berezia egingo dute lurreamendiko zaharren egoitzan.

OSASUNA ▶



## Organo ematez informatuz

E. Ezeiza ▶ Joan den ostegunean Emailearen Eguna izan zen. Hori dela eta, Euskadiko Gaixo eta Bihotz eta Birika Trasplantatuena Elkarteak mahai informatiboak jarri ditu Gipuzkoako hainbat herritan. Tolosari atzo egokitu zitzaion, eta goiz guztian zehar San Frantzisko elizaren atarian egon ziren elkarteoak, jendeari informazioa ematen. E. EZEIZA

### GIPUZKOAN gehien irakurritako egunkarietan BIGARENA\*



HITZA euskarazko komunikazio esparrua egiteko beharrezko tresna



Euskarazko prentsak gero eta irakurle gehiago ditu *Mila esker*

\*CIES-en 1. neurketa 2006. Azterketak Gipuzkoan 69.000 irakurle eman dizkigu; Herrialdeko 23 herritan egin da, horietatik 13tan dago HITZA.

**udaberriko eskaintza handia**

**PortAventura**  
188€

**TermaEuropa Boinu-etxea**  
105€

**Playa de las Américas**  
452€

**Leito bat Picos de Europa mendigunera eta Astariako hondartzetara**  
39€

**Caledonia Aparthotel**  
65€

**Caledonia DUNAS DE LEUCERES APARTHOTEL**  
48€

**EROSKI bidaiak**

**ingeniaritza imh**

**IMH Ingeniaritza Eskola**

Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

ate irekiak  
ekainaren 17an  
goizeko 11:30an  
...zator IMH Ingeniaritza Eskola ezagutzera

ikasten ala lanean?  
kasi eta gainera lari egiten da!

zure txanda!

Informazioa:  
IMH INGENIARITZA ESGOLA  
Azkue Azkue, 1  
20670 ELGORBAR, Gipuzkoa  
Tel: 943 744 132  
E-mail: ingeniaritza@imh.es  
www.imh.es

AGENDA 21 ▶

# «Mugi, iraunkortasunaren bidean»

Ernioalde 21 Udaltaldeak diagnostikoa egin du, besteak beste, zazpi udalerrien mugikortasuna aztertzeko; %50ak autoa erabiltzen du, %23 oinez mugitzen da, %8 autobusez, eta %6 trenez

## ERREDAKZIOA

Ekainaren 1ean aurkeztu zuten jendaurrean Ernioalde 21 Udaltaldeko alkateek zazpi udalerrietan egindako diagnostikoa. Adunan, Anoetan, Asteasun, Hernialden, Iruran, Villabonan eta Zizurkilan izan dituzte aztergai hainbat arlo. Eta aipagarrietako bat mugikortasuna izan da.

Mugikortasun iraunkorra pixkanaka administrazio publikoetako politiketan eta herritarren ohituretan sartzen ari den kontzeptu berria dela dio Udaltaldeak. «Ekintza, joera eta aldateta ugariz ari gara hitz egiten. Mugikortasun iraunkorrak garraibideen arazoizko erabilera lortzeko ekintza eta prozesuak hartzen ditu bere baitan».

Mugikortasun iraunkorrak errepideetan ibiltzen diren ibilgailuen kopurua gutxitzea du helburu. «Era berean, autoek sortzen duten kutsadura gutxitzen, azpiegitura berriek eragiten dituzten inpaktuak murrizten eta sozialki justuagoa den bizimodu eredu bultzatzen du». Energia aurrezpen «garantziatsua» emango litzateke; «azken batean, erregaia sortzeko erabiltzen diren erreserba fosilak mugatuak dira».

Egungo auto bolumena ikaragarritzat jotzen dute Ernioaldekoek: «Autoz egiten diren desplazamenduen heren bat 2 kilometrotakoa baino txikiagoa da —oinetz, txirrituz egin daitezkeen distantzia—. Mendebaldeko mundu honetako ibilgailuen okupazio tasa ez da 2 pertsona/ibilgailuko izatera iristen. Gainera, garraibideekin eragiten duten kutsadura haundituz doa urtez urte».

## Inkesta herritarrei

Hori guztia kontuan hartuta, «eta guztion parte-hartzea ezinbestekotzat joz», 2006ko urtarrilean Ernioaldeko Udaltaldea osatzen duten zazpi herrietako biztanleei inkestak egin zizkieten, «herritarrek egunero nola mugitzen diren baloratzeko. Honela, eman daitezkeen datu objektiboez gain, herritarrek euren mugikortasunaz duten ikusapuntua ere kontuan hartu ahal izan dugu». Eskualde eta udalerrri bakoitzak mugikortasuna baldintzatzen duten ezaugarri espezi-ko ugari dituela gogoratu dute,



Oinezkoak eta bizikleta gainekoak gainontzeko garraibideen menpe geratzen dira, «alderantziz izan beharrean». Irudian, Anoetako Ikastolako haurrak, bizikleta gainean, iaz, Autorik Gabeko Egunean. D. MAIZA

## AUTOA EZ HARTZEAREN ONURAK ▶

Ernioalde 21 Udaltaldeak bederatzi puntutan laburbildu ditu autoa ez hartzearen onurak. Hauexek dira, zehazki, herritarrei helarazitako aholkuak:

**Aurreztea.** Autoaren depositua eta poltsikoa hutsik izateak ez ditu axolako. Oinez joatea dohainik da.  
**Onura ekologikoa.** Berotegi efektua eta oro har kutsadura eragiten duten gasak ez areagotzea lortzeaz gain, energia kontsumoa murriztea lortuko duzu.

**Denbora.** Egiten dituzun ibilbide asko oinez eginez gero denbora irabaziko zenuke. Gainera, aparkalekuan tokia bilatzeaz ez zara aspertuko.

**Osasuna.** Lanera, ikastera edo enkaratu paseo bat emanez joatea osasungarria da. Autoa erabiltzeak eragiten dituen kutsadura eta zaratak eragindako gaiotasunak eta sedentaritatea galarazi daitezke.

**Harremanak eta kultura.** Eguneroko ibilbidea inguruaz gozatzeko, seme-alabekin edo lagunekin solasean joateko erabil dezakezu eta baita irakurtzeko ere, garraio publikoa aukeratu baduzu.  
**Eguneko ohikeriatik ateratzea.** Kalean, pasatzen den egun bakoitza ezberdina da, egunero dago zer ikusia.  
**Lasaitasuna.** Autoek kalean sortzen duten zarata ez den

beste soinu atseginagoak entzun ahal izango dituzu. Gidatzeak askotan sortzen duen estresarik gabe ibiliko zara.

**Segurtasuna.** Trafiko handiak eta auto gidarien bidegabetasunak eragiten dituen istripuak neurri batean galaraztea lortuko duzu. Autorik gabeko guneak seguruagoak dira.

**Zenbait sektoreen autonomia.** Autoen erabilerari begira eginiko espazio publiko eta garraibideak haur, adineko eta ezinduentzako oztzopoz beterik daude, hauen autonomia galaraziz. Autoa gubiago hartzeak gune hauek libre uzten ditu guztien beharretarako.

halaber: bertako ohiturak, garraio publikoaren eskaintza, bertako gune ezberdinetara iristen den garraio zerbitzua, etxebizitzaren arteko distantzia, autobus geltokiak, motorizazioa...

Ondokoak dira, hainbat atal-letan banatuta, diagnostikoko Adunan, Anoetan, Asteasun, Hernialden, Iruran, Villabonan eta Zizurkilan mugikortasunari buruz utzitako datuak:

## Errepideak, bideak...

▶ Zazpi udalerririk zeharkatzen dituzten errepideen zirkulazio intentsitateek gora egin dute oro har, baina nabarmen-tzekoa da Villabona, Zizurkil eta Asteasu lotzen dituen GI-2631 errepidean 1996-2003 urteen artean emandako gorakada. «Zizurkil eta Asteasu arteko trafiko intentsitate gorakada industrialdearen ondorio zuzena dela pentsa daiteke, eta etorkizuneko saihebidetako egoera hobetzea espero da».

▶ Zizurkilgo bi auzoen artean ere, intentsitatea areagotzez gain, oinezkoentzako biderik ez egoteak haien mugikortasuna zaildu eta arriskuan jartzen du.

▶ «Egoera honek zenbait neurri hartzea eskatzen du, beste-an artean, abiadura moteltzeko dispositiboak gehitzea, errepideetako seinaleak berritzea —Gipuzkoako Foru Aldundia- ren proiektuen barruan—, oinezkoentzako bideak egokitzea, zirkulazio bideraketak...».

## Mugitzeko arazoak.

▶ Ernioaldean ere biztanleen mugikortasun arrazoi nagusien artean lana eta ikasketak daude.

▶ Herritarrei eginiko inkestan %51a lanera mugitzen dela esan du, %17a erosketak egitera eta ikasketetara ala aisialdira, aldiz, %10a.

▶ Udalerrri bakoitzak bere errealitatea badu ere, «orokorrean astean herritarrek batez beste 5 bidai egiten dituzte».

▶ Egunean bidaiak bakarra %71ak egiten du, eta bi bidaiak %24ak.

## Garraibidea.

▶ «Aduna eta Hernialde batean garraibide pribatuarekiko erabateko menpekotasuna ageri da, hurrenez hurren, %77ak eta %70ak erabiltzen dutela baitiote.

► Asteasun, aldiz, autobus zerbitzuaren erabilera handiagoa da eta autoa %63ak erabiltzen badu ere, %15ak autobusa hartzen duela dio.

► Villabonan, Zizurkilen, Anoetan eta Iruran %30etik gora dira oinez mugitzen direnak. «Galdeketa arabera, Villabonan gehien erabiltzen den garraibide publikoa autobusa da (%17), eta Zizurkilen, aldiz, trena (%18).

► Orokorrean gehien erabiltzen den garraibidea pribatua da: autoa. «Inkestaren arabera autoa %50ak erabiltzen badu, %23 oinez mugitzen da eta %8 da soilik autobusez mugitzen dena, trena erabiltzen duen %6aren aurretik».

**Ibilgailu kopuruaren gorakada.**

► Zizurkilen bi biztanleko ibilgailu bat dago. «Honen aurrean udalerrietan eman beharreko azpiegitura aldaketak gel-  
doak izan dira eta, ondorioz, gaur ez dago nahikoa aparka-

leku dagoen ibilgailu kopuru-rako», azaldu dute diagnosti-koaren egileek.

► Villabonan 0,8 aparkaleku daude ibilgailuko eta Zizurkilen hiru ibilgailuko bi aparka-leku. «Arazoa konpontzeko aparkaleku berriak egitea aurreikusten bada ere, arazoaren zati garrantzitsu bat herritarren ohitura eta autoaren gehiegizko erabileran dago». Hala, hainbat neurri jartzen dituzte mahai gainean horri aurre egiteko: herritarrek kontzientziazteko kanpainak, isun edo sari bidez autoaren erabilerara murrizteko programak...

**Garraio publikoaren eskaintza.**

► Udalerri guztiek autobus zerbitzua dute eta bi udalerrietan (Anoeta eta Villabona-Zizurkil) tren geltokiak daude.

► Tren zerbitzuaren erabiltzaileen gehiengoa emakumeak eta gazteak dira.

► Egunean 1.098 pertsona igotzen dira Villabona-Zizurkil

geltokian eta beste hainbeste jaisten dira.

► «Tolosaldea autobus zerbitzuek duten garraio ezaugarriek zaildu egiten dute ohiko zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa». Honela, mugikortasun gutxi udalerrietan dagoen eskaerari egokitu-tako taxi zerbitzu osagarri bat ezarri dute dagoeneko. Hone-tarako Zizurkilgo zerbitzua osatzeko 5 taxi lizentzi daude.

► «Hala ere, zenbait gabezi de-tekta daitezke garraio zerbitzu publikoan»: autobus eta tren zerbitzuaren ordutegien arteko koordinazio falta, zenbait udalerrietara iristen den auto-bus linearen maiztasun eska-sa...

► «Nazioarteko zabalera duen (UIC) Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berria (Euskal Y-a) Ernio-aldeko udalerrien gehiengoa zeharkatzen du: Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil eta Adunako udalerrietatik igaro-ko litzateke».

► Biztanleriaren mugikortasu-

nean oinezko eta bizikleta gai-nekoek «oinarrizko papera» betetzen dutela diote Ernioal-dekoek, «beraiek baitira gai-nontzeko garraibideen men-pe geratzen direnak, alderan-tziz izan beharrean».

► Ernioaldeko udalerrietan «oinekoentzako bide gehia-goren eta egokituagoen eska-  
era handia» dago herritarren al-detik.

► Bidegorri sarea zabaltzeko proiektua martxan da Villabona-Zizurkil eta Asteasu artean.

**Mugikortasun urriko pertsonak eta ezinduak.**

► «Mugikortasun urrikoentza-ko irisgarritasuna ez da guztiz egokia oraindik».

► Villabonan udal irisgarritasun plana «obra guztietan kon-tutan hartzen» bada ere, mugikortasun urriko herritarrek «lekuz aldatzeko eragozpen ugari» dituzte.

► Zizurkilen eguneratzeko dago Udal Irisgarritasun Pla-na.

**TOLOSA ►**

**Beroaren eragina larunbateko azokan**

**Erosleen kopurua eta giroa apaldu egin zen; perretxiko zerrenda bukatzeaz dago**

**PABLO ALBERDI**

Pasa diren egunetako beroak eragin handia izan du Tolosako larunbateko azokaren-gan. Erosleen kopurua eta atzo bizitako giroa zertxobait apaldu egin zen beroa zela eta, eta zenbait produkturen kopuruak ere behera egin zuten.

Perretxiko zerrenda, adibi-dez, bukatzeaz dago, eta da-torren asterako ia ziur agor-tuta egongo dela. Mendia le-horra dago gure inguruan, eta atzo ikusi genuen perre-txikoa kanpokoia izan zen.

Barazki zerrenda ere joan den asteakoaren antzekoa izan zen. Nobedade bezela aurtengo lehenengo kanpo libreko ikusi genuen, baina 6 eurotan.

**ATZOKO AZOKA ►**

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Japoniar azalea	5,00	8,00
Txilarra	3,00	4,30
Geranioa	1,00	2,00
Hortentsia	10,00	12,00
Begonia	5,50	-
Surfinia	1,50	2,20
Eromeroa	4,00	6,00
Xarbotia	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Perrexila	0,50	0,60

**Bertako produktuak**

Onddoa	16,00	30,00
Ziza	18,00	35,00
Intxaurra	2,50	4,00
Tolosako Bab.	8,00	12,00
Lekak	2,50	3,50
Porrua	1,00	2,00
Irasagarra	3,00	6,00
Arrautzak	1,30	2,10
Artisau ogia	2,29	2,97
Ardi gazta	14,00	18,00
Behi gazta	7,00	7,50

**Produktu ekologikoak**

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Baraburia	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Arrautzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60

**MUGIKORTASUNA**

Mugikortasun iraunkorrak garraibideen arrazoizko erabilera lortzeko ekintzak eta prozesua hartzen ditu bere baitan

**ERREPIDEAK**

Villabona, Zizurkil eta Asteasu lotzen dituen GI-2631 errepidean zirkulazio intentsitateak gora egin du nabarmen

**MUGITZEKO ARRAZOIAK**

Inkestaren arabera, %51 lanera joateko mugitzen da, %17 erosketetarako, eta %10 ikasketa edo aisialdirako

**TRENA**

Egunean 1.098 pertsona igo eta jaisten dira Villabona-Zizurkilen; emakumeak eta gazteak dira erabiltzaile gehienak



Villabonan gehien erabiltzen den garraio publikoa autobusa da (%17), eta Zizurkilen trena (%18). Argazkian, Villabona-Zizurkilgo tren geltokia, artxiboko irudian. Egun, aparkalekua dago hor: Villabonan 0,8 aparkaleku daude ibilgailuko, eta Zizurkilen hiru ibilgailuko bi aparkaleku. I. GARCIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Tolosa.** Adinekoen Astea: 13:00etan, bazkari berezia lurreamendin.  
**Tolosaldea.** Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatuta ditu hilaren 18an Armentian izango den Araba Euskaraz-era joateko. Izen-ematea, egoitza (Nafarroa etorbidea, 6).

JAIAK

**Anoeta.** Udalaren egitaraua: 11:00etan, zezentxoak eta ponyak plazan; 12:00etan, pilota partidak; 12:15ean, buruhandi eta erraldoien kalejira txistulariekin; 16:00etan, txirindulariak; 17:00etan, dantza taldeen emanaldia; ondoren, merienda; gero, Joseba eta Andoni trikitalariak. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak: 10:00etan, herriko baserritar, artisauek eta artisten azoka; EHNA tramitatzeko aukera; harrentzako pilota tailerra; ondoren, bazkari herrikoa; 17:00etan, mus txapelketa.

KIROLAK

**Albiztur.** Pilota partidak, 12:00etan: Telleria-Telletxea / Narrarte-Galartza eta Beloso-Zapirain / Renobales-Oteiza. Kultur Astearen baitan.  
**Orendain.** Gipuzkoako Segatxapelketako finalerdia: Andoni Zuriarrain, Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea. 18:00etan, Zubeltzu baserriaren ondoko zelaian.  
**Tolosa.** Zesta-puntako Herri Arteko Txapelketaren finala: Tolosa-Donostia. 10:00etan, Beotibarren. Tolosakoak: Izagirre-Telleria kadeteak, Bildarratz-Rezola jubentilak eta Orrantia-Trabazos seniorrak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea, 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

**Bihar**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Eskoletako festak eskualdean

**TOLOALDEA** ▶ Villabonako Flemingeng, Zizurkilgo Pedro Mari Otañon eta Tolosako Samaniegoren eta Hirukiden ikasturte amaierako jaiak ospatu zuten atzo



Pedro Mari Otañoko Haur Hezkuntzako ikasleen emanaldia. E. EZEIZA



Flemingeko 5. mailakoek bertso emanaldia eskaini zuten. E. EZEIZA




Samaniego ikastetxearen bazkariara jende ugari bildu zen. E. EZEIZA



Hirukideko ikasleek San Juan sua irudikatu zuten. E. EZEIZA

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Eneida Saldias (Anoeta).

Zorionak, señorita.

Ondo ospatu zure 6. urtebetetzea.



ZORIONAK

Alex Goikoetxea Pagola (Alegia).

Ondo pasa zure lehenengo Jaunartzean, etxeokoen partetik.

ESTI EZEIZA

Ikasleen eguna izan zen atzokoa eskualdean, ezbaierik gabe, Tolosaldeko lau ikastetxek ikasturte amaierako festa ospatu baitzuten: Zizurkilgo Pedro Mari Otañok, Villabonako Flemingek, eta Tolosako Samaniegok eta Hirukidek. Beroa protagonista nagusi zen egunean, gaztetxoek modua aurkitu zuten freskatze eta dibertitzeko.

Irudietan ikus daitezkeen bezala, aspertzeko betarik ez zuten izan, ez ikasle, guraso, zein irakasleek. Lehenengo ikasturtean zehar prestatutako emanaldiak eskaini zituzten, ondoren bazkaria egin zuten; joko nahiz puzgarriak ere ez ziren falta izan. Bestetik, Hirukidekoek, berezitasun bezala, San Juan sua irudikatu zuten zezen-plazan, eta izpiritu txarrak uxatzeko asmoz, haurrek inguruan dantza egin zuten.